## 1. jarduera: Testuinguruaren analisia. “Ikastetxea buruan”

*Gure ikastetxean pentsatzeko geldialdi bat egitea eta gure ezaugarri zehatzetan, familien eta ikasleen eskarietan, premietan eta hezkuntza-komunitatearen iguripenetan pentsatzea beti da komenigarri. Are gehiago ikastetxeko zuzendaritza hautatzean.*

### Jarduera: Ikastetxeak une horretan bizi duen egoera aztertzea

**Xedea:** Gogoeta erraztea eta ikastetxeak behar duen zuzendaritza-motarako hurbilketa egitea.

**Testuingurua:** Irakasleen klaustroa, eskola-kontseilua, hautespen-batzordea, eta abar.

**Prozedura:** Hasteko, banakako jarduera da; eta ondoren, talde txiki batean egiten da. Azkenik, taldeen ekarpenak biltzen dira, eta ikastetxearen eta haren esanahien ikuspegiak aztertzen dira.

Gogoeta gida dezaketen galderak:

- Komunitatearen zerbitzura gaude; gure ikasleek eta haien familiek zer premia dute? Eta zer espero dute ikastetxetik?
- Duela gutxiko gure historian pentsatuko dugu, eta urrats garrantzitsuak eginarazi zizkiguten funtsezko uneak gogoratuko ditugu:
    - Zer aldaketa garrantzitsu gertatu dira ikastetxean?
    - Hazi al gara? Zerekin gaude harro?
    - Zein izan dira aldaketaren eragileak gure ikastetxean?
- Zerk definitzen du gure zentroa gaur egun?
    - Lehentasunak?
    - Lorpenak eta iguripenak?
    - Nola ikusten gaituzte kanpotik?
    - Kolektibo kohesionatua al gara?
    - Zehatz al ditzakezu guztiok norabide berean ari garen seinale diren hiru jardun-ildo? Proiektuak, ikastetxe-motari dagozkion helburuak, irakatsi eta ikasteko estrategiak…
- Etorkizunari begira. Izan garena, orain garena eta izan nahi duguna abiapuntu izanik, eta zerbaitek aurrera egiten ez badu eta hobetzen ez badu, gelditu eta ahuldu egiten dela kontuan izanik, zer motatako zuzendaritza izan nahi nuke/genuke ikastetxean? Gure ustez, zernolako zuzendaritzak erantzun diezaieke hobekien gure ikastetxearen egungo eta epe ertaineko premiei?

**Ondorioak**